

*thinking*

# Fadura

Getxoko Kirol Parke Berria

## URBANIZAZIORAKO ESKULIBURUA
## - ARGIZTAPENA -

Getxo KIROLAK bizi ezazu

# Aurkibidea

**EGUNGO ARGIZTAPENAREN ANALISIA** .... 2
**ARGIZTAPENA – ESKAKIZUNAK** .... 3
**2. MOTAKO IBILBIDEETARAKO ARGIZTAPENA (BIZIKLETAN IBILTZEKO BIDEZIDORRAK)** .... 4
**5. MOTAKO IBILBIDEETARAKO ARGIZTAPENA (ADARRAK)** .... 5
**AIRE ZABALEKO ETA FRONTOIEN ETA IGERILEKUEN ERAIKINEKO SARBIDEETARAKO ARGIZTAPENA** .... 6
**APARKALEKURAKO ARGIZTAPENA** .... 7
**KIROL-ESPAZIOETARAKO ARGIZTAPENA** .... 8
**ZUTABE ALTERNATIBOAK** .... 9

# EGUNGO ARGIZTAPENAREN ANALISIA




---------- **ORAINGO ETA ETORKIZUNEKO ERAIKUNTZAK (AURREPROIEKTUAREN ARABERA)**

---------- **HESI PERIMETRALA**

---------- **ITXITURAK**

**ARGIZTAPENA:**

1. MOTAKO FAROLA, “ZUBIA”, 3 UNIT.
2. MOTAKO FAROLA, “BIRIBIL TXIKIA”, 7 UNIT.
3. MOTAKO FAROLA, “BIRIBIL ALTUA”, 3 UNIT.
4. MOTAKO FAROLA, “PASEOA”, 10 UNIT.
5. MOTAKO FAROLA, “LED FOKUA”, 3 UNIT.
6. MOTAKO FAROLA, “PARKING I”, 7 UNIT.
7. MOTAKO FAROLA, “PARKING II”, 7 UNIT.
8. MOTAKO FAROLA, “BOLUE KANPOALD.”, 7 UNIT.
9. MOTAKO FAROLA, “CPT” , 13 UNIT.
10. MOTAKO FAROLA, “KANP. 1”, 13 UNIT.

FAROLA TIPO 10 "EXT.1" 13 UDS.



FAROLA TIPO 1 "PUENTE" 3 UDS.



FAROLA TIPO 2 "REDONDA PEQUEÑA" 7 UDS.



FAROLA TIPO 7 "PARKING II" 7 UDS.



FAROLA TIPO 3 "REDONDA ALTA" 3 UDS.



FAROLA TIPO 4 "PASEO" 10 UDS.



FAROLA TIPO 9 "CPT" 13 UDS.



FAROLA TIPO 8 "EXTERIOR BOLUE" 7 UDS.



FAROLA TIPO 5 "FOCO LED" 3 UDS.



FAROLA TIPO 6 "PARKING I" 7 UDS.



# ARGIZTAPENA – ESKAKIZUNAK

Oro har, argi uniformea proposatzen da, eremuko espazio desberdin guztietan segurtasuna emango duena eta argi-kutsadura ahalik eta gehien murriztuko duena.
Konplexuaren irudi unitarioa hobetzeko, ibilbide/leku mota bakoitzerako luminaria mota bat proposatu da.

**KIROLDEGIAREN AURREKO SARRERAKO BIDEA**

Ez da inolako jarduerarik proposatu, bertan Udalak duela gutxi esku hartu duenez, beharrezkoa ez dela uste baitugu.
Behar izanez gero, proiektu espezifikoetan sartu beharko da.



**IBAI-PASEALEKUA (3. MOTAKO IBILBIDEA ZOLADURA-GIDAN)**

Ez jardutea erabaki da eremuko biodibertsitateari eragin diezaiokeen argi sarkorra saihesteko. Era berean, parkeko gainerako lekuetan 3000 K-ko tonua proposatu da, eragin dezakeen argi-inpaktua murriztearren.

**OINEZKOENTZAKO BIDEAK (5. MOTAKO IBILBIDEAK ZOLADURA-GIDAN)**

Eremu hori argiztatzeko, baliza-motako argiak proposatu dira, hiru ehoziriko antolaketan, uniformetasun-maila ezin hobeak lortzeko.

Potentzia-sentsore bat izango da argi-kontsumoa ahalik eta gehien optimizatzeko.

**APARKALEKUA, EGOTEKO ZONAK ETA BIZIKLETAN IBILTZEKO BIDEZIDORRAK (3. MOTAKO IBILBIDEAK ZOLADURA-GIDAN)**

Zutoin motako argi-puntuak luminariarekin, altuera 6 m-ra murriztuz eta optika tratatu beharreko eremuaren beharretara egokituta.



**OINEZKOENTZAKO BIDEAK:** S1 mota, 25 m-ko tartearekin.
**IBILGAILUEN BIDE-EREMUA (1. ETA 4. MOTAKO IBILBIDEAK):** CE3 mota, 12,5 m-ko tartearekin.

**BIDEGORRIKO BIDE-EREMUA:** luminaria bera 12,5 m-ko tartearekin eta aparkalekuan baino argi-potentzia txikiagoarekin.

# 2. MOTAKO IBILBIDEETARAKO ARGIZTAPENA (BIZIKLETAN IBILTZEKO BIDEZIDORRAK)

**ZUTABEAK**

Philips-en “SUMU” motako antzeko zutoinak proposatu dira, 4 metroko altuerakoak, materialtasunarengatik (altzairu lakatuzko oinarri beltza eta goiko aldea zurezkoa). Oso ondo integratzen da natura-guneetan, eta parkearen erabilera ezberdinetarako argi-mota eta altuera desberdinak integratzeko erraztasuna du. Horrela, uniformetasuna sortzen da parkearen barrualde osoan, ibilbide-mota eta egoteko eremu guztiei zerbitzua ematen baitie.

**MATERIALA.** Zur trinko ijeztua, modu jasangarrian kudeatutako basoetakoa (PEFC / FSC).
Oinarria eta besoak altzairu galbanizatuzkoak.

**AKABERA.** 3 geruzako akabera-esmaltea. Oinarria eta besoak poliesterrez margotuak labean.



Notche argiaren irudia, altua eta foku gidatuak, Philips etxekoak. Proposatutakoaren antzeko estilokoa, baina ebakidura karratuko zutoinarekin



WOOD STAIN
BrXPe
METAL COLOUR STANDARD ASSOCIATION
Black 100 sanded OPTIONAL
METAL COLOUR
Grey 900 sanded

**LUMINARIAK**

**2 FOKU GIDATU -**

Ibilbide mistoetarako, bi foku gidatu proposatzen dira, Philips-en “foku gidatuen” motakoak edo antzekoak, zutoin zirkularren gainean, intentsitatekoak eta azterketa luminikoek eremu espezifiko bakoitzerako adierazitakoak. Altzairu lakatuzkoak eta beltzak.




**KOKAPENA**

Modu linealean ezarriko dira, ibilbidean azterketa luminiko espezifikoek batetik bestera adierazitako tartearekin. Kokapena aldatu egingo da beharren arabera, baina kirol-eremuetako bideen eta hesien artean kokatzen ahalegindu beharko da, laburpen-dokumentuan erakusten den bezala.

# 5. MOTAKO IBILBIDEETARAKO ARGIZTAPENA (ADARRAK)

**BALIZAK**

Philips-en "OPTISPACE" motako balizak edo antzekoak proposatzen dira haien eraginkortasun eta materialtasunarengatik (natura-guneetan oso ondo integratzen da) eta altuerarengatik. "Corten altzairua" proposatzen da, koloretan margotua.



2. MOTAKO IBILBIDEETAN (IBAI-PASEALEKUA) argi-punturen bat behar bada, baita ere era honetako argiak hautatuko dira.






# AIRE ZABALEKO ETA FRONTOIEN ETA IGERILEKUEN ERAIKINEKO SARBIDEETARAKO ARGIZTAPENA

**ZUTABEAK**

Philips-en “SUMU” motako antzeko zutoinak proposatu dira, 4 metroko altuerakoak, materialtasunarengatik (altzairu lakatuzko oinarri beltza eta goiko aldea zurezkoa). Oso ondo integratzen da natura-guneetan, eta parkearen erabilera ezberdinetarako argi-mota eta altuera desberdinak integratzeko erraztasuna du. Horrela, uniformetasuna sortzen da parkearen barrualde osoan, ibilbide-mota eta egoteko eremu guztiei zerbitzua ematen baitie.



Notche argiaren irudia, 6 m-ko altuerakoa eta foku gidatuekin, PHILIPS etxekoa. Proposatutakoaren antzeko estiloa, baina ebakidura karratuko zutoinarekin.

**MATERIALA.** Zur trinko ijeztua, modu jasangarrian kudeatutako basoetakoa (PEFC / FSC).
Oinarria eta besoak altzairu galbanizatuzkoak.

**AKABERA.** 3 geruzako akabera-esmaltea. Oinarria eta besoak poliesterrez margotuak labean.




**2 ETA 4 FOKU GIDATU ARTEKO LUMINARIA**

Egoteko espazioetarako, hainbat foku proposatzen dira, Philips-en “foku gidatuen” motakoak edo antzekoak, zutoin zirkularren gainean, intentsitatekoak eta azterketa luminikoek eremu espezifiko bakoitzerako adierazitakoak. Altzairu lakatuzkoak eta beltzak.

**KOKAPENA**

Oro har, luminaria horiek 2-3ko talde txikietan jarriko dira, eta nolabaiteko protagonismoa izango dute egoteko espazioaren diseinuan.

# APARKALEKURAKO ARGIZTAPENA



## ZUTABEAK

Philips-en “SUMU” motako antzeko zutoinak proposatu dira, 6 metroko altuerakoak, materialtasunarengatik (altzairu lakatuzko oinarri beltza eta goiko aldea zurezkoa). Oso ondo integratzen da natura-guneetan, eta parkearen erabilera ezberdinetarako argi-mota eta altuera desberdinak integratzeko erraztasuna du. Horrela, uniformetasuna sortzen da parkearen barrualde osoan, ibilbide-mota eta egoteko eremu guztiei zerbitzua ematen baitie.

**MATERIALA.** Zur trinko ijeztua, modu jasangarrian kudeatutak basoetakoa (PEFC / FSC).
Oinarria eta besoak altzairu galbanizatuzkoak.

**AKABERA.** 3 geruzako akabera-esmaltea. Oinarria eta besoak poliesterrez margotuak labean.



WOOD STAIN
Brume
METAL COLOUR STANDARD
ASSOCIATION
Black l00 sanded
OPTIONAL METAL
COLOUR
Grey 900 sanded

## APARKALEKUKO ZUTABEAK

Argi-mota formalagoa erabiltzea proposatzen da, Fadura parkearen inguruko estilo hiritarrarekin bat datorrena. Horretarako, Philips-en “Sunstay Pro” argiaren antzeko luminaria jartzea gomendatzen da (edo antzeko bat, baldintza horiek betetzen dituena, aukeratutako zutoinera egokitzen dena eta eraginkortasunaren, mantentzearen eta iraunkortasunaren aldetik behar bezala funtzionatzen duena). Zutoin batzuetan bi argi beharko dira: baxuagoa, oinezkoentzako bideak argitzeko, eta altuagoa, aparkalekurako.

## KOKAPENA

Azterketa luminikoa egingo da argiak kokapen egokian jartzea zehazteko, oinezkoentzako guneak nahiz aparkalekua behar bezala argiztatzeko.




*SUMU ZUTABEAREN EBAKETA*

# KIROL-ESPAZIOETARAKO ARGIZTAPENA

**S MULTIFOKUAK**

Philips-en “STRATOS” motako luminaria edo antzekoa erabiltzea proposatzen da, 17m-ko altuerako, materialtasunarengatik (oso ondo integratzen baita natura-guneetan), altuerarengatik (ALTUERA ETA POTENTZIA HANDIKO FOKU ANITZEKO IZAERARENGATIK) eta aztertutako beste argi-mota batzuekin familia sortzeko erraztasunarengatik (zutoinak parkearen barrualderako aukeratutakoen berdinak dira, baina ebaketa karratukoak).

FITXA TEKNIKOA




**AZTERKETA LUMINIKOA**

Zehatz-mehatz aztertu beharko da kasu espezifiko bakoitza, kirol-eremuetako kanpoko argiztapenari dagokionean.

# ZUTABE ALTERNATIBOAK

Koherentziaren ikuspuntutik, goian adierazitako A motako zutabeak zabaltzeko ahalegina egingo da, baina beste eredu hori begi-inpaktua hain handia ez den lekuetan erabiltzeko aukera ere ematen da; hala, inbertsioaren zenbatekoa doitu ahal izango da. Irizpide hau argiztapen zutabeak egiten dituzten proiektu bakoitzean aplikatuko da.






**ZUTABE TIPOA B.Cilaltzairu herdoilgaitzezkoa, ABPC akoplamenduarekin eta korten altzairuaren akaberarekin**

**Deskribapena**

Zutabe guztiz zilindrikoa, karbono altzairuzko hodian egina. Arraseko ate bat, konexio-kaxa finkatzeko pletina eta lur-konexioa ditu.

200 mm-ko diametroa duten zutabeek data-enablerrak har ditzakete Burst RGB eta iW bertsioetarako. Akoplamendu-kopuruaren arabera, atexka bat edo bi izaten dituzte.

120 mm-ko diametroko zorroa du, lau M4 finkatze-punturekin, Burst edo Blast proiektoreak muntatzeko.

Instalaziorako gomendatutako altuera 6 metrokoa da honako hauetarako:

- Aparkalekurako argiztapena 6 metro
- Aaparkalekua, egoteko eremuak eta bizikletentzako bideak (gidako 3. motako ibilbideak)
- Aire libreko guneetarako eta frontoi eta igerilekuetako eraikinetarako sarbideetarako argiztapena
- Eta 4 metrokoak 2 motako ibilbideetarako (bizikletentzako bidexkak)

**Materiala**

Karbono altzairua (S-235-JR) edo hortik gorakoa, UNE-EN-10025 arauaren arabera.

**Bukatua**

Corten altzairuaren fabrikazioa, korrosioarekiko erresistentzia eta akabera estetiko bereizgarria ematen duen herdoila babesteko patina garatzen duen materiala, estaldura gehigarririk behar ez duena.

**Homologazioak**

UNE-EN-40-5:2003 (EN 40-5:2002); produktuaren ziurtagiria (N marka) eta CE markarako adostasun-ziurtagiria.